

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Arbiganoko finka batzuen errentamendurako enkantea

Erriberagoitiko udalbatzak, 2016ko irailaren 14n balio osoz egindako aparteko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion administrazio klausula berezien agiriari; hain zuzen ere, udalaren finken errentamendu kontratua esleitzeko enkantea arautuko duten administrazio klausula berezien agiriari, zeina jendaurrean jartzen baita 8 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Aldi berean, eta bat etorritik toki araubideko gaiak arautzen dituen testu bateratuaren 122.2 artikuluan xedatutakoarekin, lehiaketa publikoa deitzen da, nahiz eta lizitazioa atzeratu egingo den baldintza agiri horren aurka erreklamazioen bat aurkezten bada.

Udalaren finken errentamendu kontratua esleitzeko enkantea.

1. Erakunde esleitzailerak: Erriberagoitiko Udala

2. Kontratuaren xedea: Udalaren finken errentamendu kontratua esleitzeko enkantea, ondoren zehazten diren loteetan:

1. lotea

Poligonoa	6
Lurzatia	115
Azalera	14.912
Azalera goldagarria	6.500
Poligonoa	6
Lurzatia	222
Azalera	6.639
Azalera goldagarria	3.600
Poligonoa	6
Lurzatia	1.838
Azalera	3.612,61
Azalera goldagarria	2.700
Poligonoa	6
Lurzatia	1.839
Azalera	987,02
Azalera goldagarria	900
Katastro azalera, guztira	26.150,63
Azalera goldagarria guztira, gutxi gorabehera	13.700,00

2. lotea

Poligonoa	6
Lurzatia	115
Azalera	14.912
Azalera goldagarria	7.400
Katastro azalera, guztira	14.912
Azalera goldagarria guztira, gutxi gorabehera	7.400

3. Kontratuaren iraupena: lau urtekoa, eta 2020ko irailaren 1ean amaituko da.

4. Lizitazio oinarria: Ehun eta berrogeita hamar euro eta zero zentimo (150,00) ha / urteko; gehiago eskainiz baino ezingo dira hobetu eskaintzak.

5. Espedientea: Erriberagoitiko Udalean (Pobes), udal idazkaritzan, dago ikusgai.

6. Bermeak: behin-behineko bermea lizitazio oinarriaren ehuneko 4 izango da. Behin betikoa, berriz, lizitazioaren ehuneko 6

7. Eskaintzak aurkeztea: eskaintzak Erriberagoitiko Udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:00etara, 26 egun naturaleko epean, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (larunbatetan izan ezik).

8. Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboan agirian aipatzen direnak.

9. Eskaintzak irekitzea: Erriberagoitiko Udalaren batzar aretoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egun balioduneko 13:30an.

10. Beste argibide batzuk: ikus administrazio klausulen agiria

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Pobes, 2016ko irailaren 19a

Alkate lehendakaria
JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ